



OÑATI

URI polit, atsegintsu, maitagarriak, asko ta asko ezagutzen dira gure Euskal erri berdin gabian; bañan Oñati'ren neurrikuak ez dira asko izango.

Euskal erriaren biotzian josita bezela azaltzen zaigu, mendi tantaiez inguratua, zugazti itzaltsuak alde guzietatik erakusten dizkigula, ta bera berriz zelai alaitsu batian alchia enparantza ta karrika chukun ta apañak batera ta bestera ditula.

Lengo garayetan etzan Gipuzkoa'ren laztan beroan arkitzen, beste nagusiak zituben, kondiak zeukazkien buru edo nagusizat, Gebara'tarren mendian zegon.

¿Nola ukatu baña Gipuzkoa'ren zati bat zala? Zati politenetakoa, atsegiñenetakoa, leñargienetakoa. Gipuzkoa'ren biotz biotzian arkitzen zan. Gipuzkoa'ren lurrin gozoa alderdi guzietatik arnasten zuen. Nai ta nai ez Gipuzkoa'ren beso kupitsuetan arkitzen zan.

Ala beaz Gipuzkoa'ren zati bat besterik izan ezin zitekiena, Gipuzkoa'kin batutzeko asmo sendo ta bikaña artu zuen.

Orregatik 1540 garren urtian Balladolid'en ipiñi zuen ausia Gebara'tarren menpetik irteteko, ta orretarako bertarako ere, Gipuzkoa'ren laguntza ezin ukatua eskatu ta izan zuen.

Batzuetan Gipuzkoa'kin batuta, bestietan banatuta juañ dan eunkidaren asieran gora-bera batzuek ibilli zituen; bañan azkenian, 1845 garren urtian beti betiko batu zan anai gipuzkoarrekin sendi maitetsu batian aurrera irauteko.

Edesti ospetsua da Oñati uri leñargiaren edestia; bañan idazkietan

baño garbiago azaltzen zaigu bere goitasuna bertako eche ta jauregi gain-gañekoetan.

Eche ederren artean ederrena bere ikastola nagusiya da: Gotzon donearen ikastola.

Oñati'ko seme ospetsu Merkado ta Zuazola'tar Rodrigo Apezpiku jaunak beraz egin azi zuten ikastola au, ta eche-gille prantzez Pikard buru zala jaso zan eche eder eta apaña.

Paulo III, Aita-doneak, 1540 garren urtian onetsi zuen, ta erabaki ere bai, ikastola au «Gotzon donea» izendatuko zala aurrera, geroztik beti izendatu izan dan bezela.

Españiko erregeak ere ontzat eman zuten ikastola onen ipintzia ta beren buru bezela jarri ziran. Ortik zetorkion ikastola oni, erregetasun ta aita-donetasuna.

Ots aundikua izan zan lengo garayetan, beste alderdietan ziran ikastola bezin goitua arkitzen zan; baña geruago jesten juan zan bere izen gogoangarria.

Kosk chiki bat 1772 garren urtian eman zioten; geruago berriz, 1807 garren urtian Karlos laugarrenak, Godoi'ren aolkuz ichi azi zuen, naiz ta Euskal erri guziaz erabakide orren kaltez alcha.

Gero 1814 garren urtian Fernando zazpigarrenak zabaldu azi zituben ikastola onetako atiak eta berriro lenagoko eran, buru lan azkarrak egin ziran. Ogei urtian iraun zuen ikastolak irikia. Ondoren anai-guda etorri zan ta Gazteiz'era eramán zuten ikastola.

Karlos'tarrak Oñati'ren jabe egon ziran bitartian iriki zuten berriro bertako ikastola nagusiya bañan Karlos'tarren nagusitasuna amaitu zanian, une berian amaitu zan ikastolaren izatia.

Andik urte batzuetara ikaste batzuek eman ziran, gero batere ez. Etorri zan bigarren anai-guda ta Karlos'tarrak ipiñi zuten berriro ikastola nagusiya. Guda arrekin amaitu zan ordia ikastolaren bizia.

Azkenik urte batzuetan irikia egon zan berriro, ta lege gizon batzuek bertan egin ziran, ez motel motelak berak ere. Baña ezin aurrera iraunian arkitu ziran, ichi biar izan zuten ta geroztik ichiya arkitzen da.

Orain agertu da berriro ikastola ori berriro irikitzeko zalia, ta sayatzen dira zerbait asmo zuzen orretara irichitzeko. Ez dago zer esanik, zein pozgarriya izango litzaken asmo oyek ondo ateratzia. Euskaldunak gogotik ikusiko luteke, beren semiak erbesteetara bigaldu biarrian, beren erri maitiaren biyotzian ikaspenak arkitzeko era izatera irichiko balira.

Egun abetan irikiko da ikastola nagusiya; bañan ez bertan eman oi ziran irakaspenak emateko, euskal irakaspen gogoangarriak entzuteko baño.

Berakin pištu dedilla euskaldunen biyotzetan gure lur maite, gure ele zoragarri, ta gure oitura illezkorra ganako maitasun sutsu ta gartsua.

Ikastolaren ondoren, bertako eleiz aundi zabal, eder, apaña da beste guzien gain. Eleiz ederrak ugari dira Euskal errian, bañan Oñati'ko au ederretan ederrenetakoa dala iduritzen zaigu.

Ikusgarria da gañera Bidaurreta'ko mojen eleiza, iru eunkida baño geyago da jaso zala ta bere edertasuna abo betez zabaltzen dute ikustera irišten diran guziyak.

Ondoren izango da erriko-echia, 1779 garren urtian jasua, ta apainkiro antolatua.

Beste eche ta jauregi asko dira Oñati'n zer ikusi aundikuak, bañan ezin izendatuko ditugu orain banaka banaka.

Bañan edertasun aben guztien gain dauka Oñati'k, bere lur barruan, Gipuzkoa'ren Ama zaindaria, Arantzazu'ko Birjiña maitea, berak Aloña mendian aukeratu zuen leku berezian.

Balzategi'ko Rodrigo artzaya'ri agertu zitzaion 1469 garren urtian ta gerostik diote gipuzkoarrak lei sutsua beren Ama laztanari.

Itzak gezurrak izan litezke, ez ordia arriyak; eta leku artan eleiz gain gañekoa alcha zuten besoak, erakusten diguten zenbaterañoakoa dan Arantzazu'ko Amai maitearen ganako lei sutsua.

Euskaldunak ugari bilduko dira orain Oñati'n, gure lur maitiari dagozkion gauzetan gogaldutzera. Ondo egingo dute ta Euskal erriarentzako pozgarri ta atsegintsu izango da.

Tartiak izango dituzte ordia, ta tarte oyetan ikusiko dituzte uria- ren edertasun ugariak, ta gañera egingo dute, ¡nola ez! juan-etorri bat Aloña mendira, Arantzazu'ko Ama maiteari agur bero bat egitera.

M. ARRONIZ

